

«LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA»

XXI. MENDETIK

Mende erdi bete da oraintsu euskal literatura modernoaren abiapuntutzat jo izan den "Leturiaren egunkari ezkutua" eleberria argitaratu zenetik. Gure letretako mugarri garrantzitsuetako bat izan den Txillardegiren lan hau, hizkuntza eta kultura frankismoaren menpeko sasoirik ilunenetan zeuden unean.

URTIURRUTIKOETXEA

koizpen idorra tanta bakanez bustitzen zuten garaitik milaka liburu eta aldizkari argitaratzen diren XXI. mendera iritsi gara, eta orduan eta orain eleberrri haren garrantzia gehiago jakin gura izan dugu. UEUko ikastaroetan ere Txillardegiren nobela izan dute hizpide aurten. 50 urtek begirada berri bat merezi dutela ikusita. Liburuak erbesteak eta elizak markatutako panorama gottik behera astindu zuten, garaiko ardurak eta eztabaidak euskaraz ekarriz.

Egileak berak behin baino gehiagotan aipatu izan du noia sortu zen nobela. 1956an Ferrolen soldadutza egiten zegoela. «Cabo Prior-en eta San Jorge da Mariñan beta izango bide nuen, Knut Hamsun-en 'Pan' eleberrri zoragarria euskaratzeko deliberoa hartu nuen. Maiz ikusi ohi nuen Koldo Mitxeleneri adierazi nion asmo hau. Honek orduan ezetz erantzun zidan, neronek neure kasa idatzi behar nuela nobela bat. Zurtuta utzi ninduen... Eta horrela jaio zen 'Leturiaren egunkari ezkutua'».

Patri Urkizuk eta Iñaki Aldekoak eleberriri buruzko ikuspegi ezberdin bi eman berri dituzte: "Leturiaren egunkari ezkutua" liburuak argitaratu zen garaian izan zuen harreaz eta eraginaz, eta gaur egundik begiratuta nobelaren garrantzia «1957an oso nobela gutxi genituen, 'Hamabost egun Urgainen', 'Joanak Joan', eta 1956an 'Seber Altuberen' 'Laztanta eta Bertargi' egon ziren, oso gutxi zegoen, oro har, -gogoratu du Urkizuk-. Eta bestetik Txillardegiren daukagu, hasieran itzulpena buruan baina Mitxeleneri ezetz esan zion, barrenetik atera behar zuela. Bilbon ingeniari zela ikasten zela badakigu pila bat irakurtzen zuela, irentsi, hori oso nabarmena da liburuan agertzen diren erreferentziak: Kafka, Buda, Homero, Valery...».

Frankismoaren sasoi ilunenak pasatu gabe zuekela eta euskal kultura erbestean edo Ipar Euskal Herrian gertatzen ziren sasoiari iritsi zen eleberria. Hego Euskal Herriko kultur basamortu horretan erabateko berrikuntza da eleberria, eta kritika guztiak onartzen diote hori; liburua denek gustuko izan ez arren, ezin esan barrera txarra izan zuenik. «Koldok (Mitxeleneri) oso sarrera interesgarria egin zion, aipatzen zuen eleberria berria zela, mundu berria zela. Hori garaiko kritika idazle guztiak aipatzen dute. Giroa aztertzeke garaiko idazleen arteko gutunak irakurri behar dira, nik Mirande, Andima (Ibñagabeitia) eta Koldorenak argitaratu ditut, eta ikusten da zer nolako komentarioak merezi zituzten garaiko lanek. Iñagabeitiak eta Nemesio Etxanizek 'Euzko-



"Leturiaren egunkari ezkutua" liburuarren azala.

goa' n idazten dute, oso ohikoa den eran, oraindik ere, bi iritzi ezberdin ematen, Iñagabeitiak asko txalotu zuen, irentsi egin zuela dio, hizkuntzaz ezta ohartu gabe dio, Nemesiok berriz gordin samarra zela, oso gazia, hizkera aldetik Koldok zio-ena hartu zuela, esaten du nola Koldo Mitxeleneri bere buruhaustek pasatu zizkion. Dena dela nik uste dut garaiko moda zela existentzialismoa».

Garaiko kritikak

Ez ziren kritika guztiak positiboak izan, baina iruzkinen artean alde handia egon zen: Luis Villasante, Joxe Azurmendi, Iñaki Baztarrika, Andoni Urretarazu *Umandi*, Jon Mirande. Parisko zuberotarra aitzindaria zen Txillardegiren aurretik II. Mundu Gerra osteko pentsamolde aldaketan, «txalotu zuen Mirandek Leturiaren berritasuna, baina kritikatu zuen frantseseko lilura eta esan zuen Frantziar bizi balitz ez lukeela hain handia izango».

Beste kritika batzuk, eliz girotik zetozenak, deserosotasunetik eta ez ulertzetik azaldu ditu Urkizuk: «Andoni Urretarazu *Umandi*-k 'Euzko-Deya'-n idatzi zuen gaiarekin ez zegoela ados. Villasantek ere oso inportantea da. 'Egan'-en txalotu zuen lana, baina bere katoliko ikuspegitik neguaren ondoren udaberriaren piztutera aipatu zuen, katolikotasunetik kritikatu baina hizkuntza aldetik txalotuz». Iñaki Baztarrika izan zen, "jakin"-en, gogorren idatzi zuena, eta Txillardegiren erantzun ere egin zion.

Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeko argitaratzailearen ustez, "garai hura ez zegoen prestatuta gaur egun irakurriko genuen bezala nobela irakurtzeko, sekularizazioaren munduaren lehen arrastoak ziren, erlijioa bai ez zabala eta ideien borroka izugarria zeuden", eta horregatik, irakurle gehienak elizgizonak ziren garaian erreferentzia izan zen, "beren artean izaten ziren erreseinak. 'Egan'-en Luis Villasantek

ez zion modu gaiztoan eraso, baina ez zuen ulertzen Leturia moduko pertsona bat. Baztarrika gaiztoagoa zen, ale berean bi artikulu zituen, Camus-i buruz bat, oso goian jarri bere zintzotasuna eta nolabait aditzera eman ez Camus eta Dos- toievski ulertzen ditugula, baina egurra eman ez haiek euskarara dakartzatenei".

Gaurko ikuspegi

Sasoi ilun batean ardura garaikideak ekarri eta euskal literatura eraberritu zuen nobelaren irakurketa oso desberdina da XXI. mendetik, ordea, Iñaki Aldekoaren ustez. Tradizio katolikoan gutxi erabili izan da egunkaria, «genero hori protestantismoaren girotik eta kulturatik dator, egunkaria beti baita barneratzea, barne-gogoeta, intimitate eta subjektibitatea, baina apaizaren aurrean konfesatzen denak ez du beharrik».

Eleberrian arazoa ikusi dio horri Aldekoak. «Txillardegiren k egiten duen *brainstorming* izugarri hori, ideien etengabe borroka da, hau da, ideiak filosofikoki erabakitzen dira. Filosoziaren garaipena nobelagilearen porrota da, hor interesatzen zait gaur nola irakurriko genukeen». Eta adibide gisa jaso du: «Gaurtik Leturiak Mireni emandako zaplatzeko garrantzitsua goa egingo litzateke jainkoaz egiten duen ukazioa baino, baina orduan gauza normalak ziren, borroka intelektuala egiten da».

«Dramatismo filosofikoa» aitortuta ere, dramatismo nobelistikoa ere falta ikusi dio Ereinke argitaratzaileak. «Bizitzaren zurrumurrua falta zaio. Ezer gutxi dakigu Leturiari buruz, zer egiten du pentsatzen ari ez denean, nolako da? Egunkariak eman zezakeen hori gutzia, eta nobela gisa huts egiten duena hori da. Egunkariak manik idazteko, datatzeko, erregistratzeko balio du, esate baterako uda iristen da eta ez da nobelatzen, ez zio interesatzen tesi hori agertzea, horregatik dago nik desoreka handitaz jotzen dudana, nolabait nobela generoaren abusua deitu nuen».

"Leturiaren egunkari ezkutua"-k maitasunaren helduorotik udazkenara eta maitasunaren ahitzera egiten du jauzi, eta hortik «heriotzarekin sua, hau da, asperdura. Hori hain da tesi garrantzitsua, nahiz eta filosofikoki izan, aurrez aurre jarri beharko zen». Egunkaria bera, gaiak, oso alderdi modernoak ekarri zituela aintzat hartu du Aldekoak, «esandako guztiak ez dio kentzen nobela horrek izan zuen balio historikoa, nik berriz ere gus-tura irakurri dut, baina kezka horrekin, gure kultura ulertzeko, beste pertsonaia askoren bilakaera behar dela».

Garrantzia hain zuzen ere, alderdi moderno eta berritzaile horrek ematen dio «ideien borroka oso goiztiarra da. Ramon Saizarbitorien 'Egunero hasten delako' ere 1969koa da, hamabi urte geroagoa, eta ez pentsa jendea prestatuta zegoenik nobelak forma aldetik, edukirik zekarren berrikuntzarako. 1960ko hamarkadako urteetan heldu zen modernitatea, eta jendea komentutik kanpora eta Bibliatik Marxen Bibliara pasa zen». Horregatik aitortu dio Aldekoak "Leturiaren egunkari ezkutua"-ri garrantzia, nobela gaur egundik begiratuta apala iruditzen arren. «Garaian izugarriko garrantzia izan zuen, eta niretzat oso inportantea da nobela hori, kezkatu egiten gareliko testuinguruz, gure kulturak zen aldaketa izan zuen. Baina esanez gero, gaur aholkatuko zenioke gazte bati? Historiaren osagai hori gabe, nobela gisa besterik gabe, ez».